

1818. URTEKO “GABON-KANTAK”.

Euskal literaturaz arduratu garenotan edonork dakigu Erdi-Aroan hondarretan Andre Milia Lasturkoaren aizpa eta Martin Artazubiagaren arreba izan zirela bi emakumezko eresigile. Ondoko urteetan ez da ageri emakumezkorik euskal literaturan Esoporen alegiak euskaratu zituen Bizenta Mogel Elgezabal (1782-1854) Ipui onak (1804) itzulpena agerrarazi arte; baina, Bizenta, Joan Antonioren iloba eta Joan Joseren arreba zenak besterik ere idatzi zuen. Eleuterio Basozabal inprimatzailerekin ezkondua zenez, zenbait urtez “Gabon-kantak” argitaratu zituen V.M.B. siglarekin, 1818koan erakusten digunez. Gainera, 1832. urteko Gabonetan “Peru eta Yoane” deritzan bertsozko kontakizuna, berauotan Jose Paulo Ulibarri izan omen zuen eragile.

J.S.M.